

## **UPV/EHUko IKERTZAILE DOKTOREAK ESPEZIALIZATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2017):**

### ***Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak oniritzia emanda, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, hona Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) 2017ko apirilaren 10ean argitaratutako

#### **UPV/EHUko IKERTZAILE DOKTOREAK ESPEZIALIZATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2017)**

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak aurkeztutako eskaerak berrikusi eta batez ere ondoko alderdiak hartu ditu kontuan:

- a. Eskatzaileek 3. oinarrian ezarritako baldintzak bete izana.
- b. Eskaera abalatzeko duen zientzi zuzendariak 4. oinarrian ezarritako baldintzak bete izana.
- c. Eskaera abalatzeko duen ikertaldeak 5. oinarrian ezarritako baldintzak bete izana.
- d. Eskatzaileek 10.1 oinarriak zuzendu ezin daitezkeela jasotzen dituen agiriak ezarritako epean eta moduan aurkeztu izana.
- e. Eskatzaileek 10.2 oinarriak zuzendu daitezkeela jasotzen dituen agiriak ezarritako epean eta moduan aurkeztu izana.
- f. Hautagaiek, nahi izanez gero, euskara jakintzari buruzko egiaztagiriak aurkeztu izana merezimendu gisa kontuan hartzeko, 13.4 oinarriak ezarritako moduan.

Tramite horrekin amaitutakoan, ERABAKI DA errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda, ebaluazio fasera igarotze aldera. Argitaratze horrek ohiko jakinarazpenen ondorioak izango ditu.

Eskatzaileek 2017ko ekainaren 13tik 26ra (biak barne) izango dute erabaki honetako I. eranskinean adierazitako okerrak zuzendu edo egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko. Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskariak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAE-k eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Eskatutako agiriak CDn, DVDn edo pendrive batean (PDF formatuko fitxategiak) aurkez daitezke UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bulegoetan edo postetxeko edozein bulegotan administrazio bidalketa bidez, posta ziurtatuaz:

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)  
Errektoregoaren eraikina  
Sarriena auzoa, z/g  
48940 - Leioa (Bizkaia)**

**Sinadura originalak eskatzen direnean paperez bidali beharko dira.** Nahitaezkoa izango da idatzizko jatorrizko sinadura edo onartutako sinadura elektronikoa eskaeran agertzea; eskaneatutako sinadurak ez dira inola ere onartuko.

**Posta elektronikoz bidalitako hutsen zuzenketak ez dira baliozkotzat joko.**

Aipatutako epea igarotakoan, agiriak aurkeztu ez dituzten eskaeren kasuan, atzera egin dela ulertuko da.

Dena dela, ebaluatzeko prozesuan aurkeztutako agirietan hutsuneren bat aurkituz gero, interesdunari eskatuko zaio jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epean aurkezteko.

**OHAR GARRANTZITSUA:**

Aurkeztutako eskaerak askotxo izan direnez eta eskaera egin dutenei lehenbailehen erantzun nahi diegunez, eskatzen dizuegu kontsulta guztiak posta elektronikoz egiteko ([pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus)), **mezuaren gaiari "Deialdiaren zuzenketa PID" adierazita.**

Leioan, 2017ko ekainaren 12an.



**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza

